

Berriro ere beste urte bat
amaitzear dugu jada
eta Gabonak heldu zaizkigu
guztiori etxeetara
jarri gaitezen tximini ondoan
senide, lagun denak alboan
txiste, kontu ta algara

Bakoitzak bere opariak jaso
edo ikatza beharbada
jaiaz gozatu eta alaitu
begi horien begirada...

Bi aste hauek aprobetxatu
aurtengo Gabonetaz gozatu
bakoitzak bere erara
bueltan elkartuko gara

Doinua: Izarren hautsa

Bertsoaren egilea: Peru Abarrategi Sarrionandia, 1. Batx.

Irudiaren egileak: Lorea Sánchez eta Anixe Uribarren, 2. Batx.